

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabán, Zuiako udalerrian, Zarate herrian baserri-oilo ustiategi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2021-0005

Eskatzailea: Iván Vazquez Lafuente.

Ivan Vazquez Lafuentek eskatu du Zuiako udalerrian, Zarate herrian (9. poligonoko 208. lursailean) baserri-oilo ustiategi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, instalatuko den arazketa sistema batekin. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 5a

Isurketa arduraduna

AITOR BELDARRAIN URIONDO